

# elizalde

   HERRI ESKOLA

# A.J.A

## ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

# **I. TITULUA. ELIZALDE LHI ko ANTOLAMENDUA**

## **I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. ELIZALDE LHIren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak.
2. artikulua. Aginte-organoak.
3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza.
4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak.
5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak.

## **II. KAPITULUA TALDEKO AGINTE-ORGANOAK**

### **I. ATALA. ELIZALDE LHI ko OOG**

6. artikulua. ELIZALDE LHIko OOGren ezaugarriak eta osaera.
7. artikulua. OOG hautestea eta berritzea.
8. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena.
9. artikulua. Presidentearen eskumenak.
10. artikulua. OOGko mahaikideen eskumenak.
11. artikulua. OOGko idazkariaren eskumenak.
12. artikulua. OOGko batzordeak.

### **II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA**

13. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera.
14. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena.
15. artikulua. Klaustroaren eskumenak.

### **III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA**

16. artikulua. Zuzendaritza taldea

## **III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK**

17. artikulua. Zuzendaria.
18. artikulua. Ikasketa-burua.



19. artikulua. Idazkaria.

20. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea.

21. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko.

## **IV. KAPITULUA IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOA**

22. artikulua. ELIZALDE LHko koordinazio-organismoak

### **I. ATALA. LAGUNTZA TALDEA**

23. artikulua. Laguntza taldearen osaera

24. artikulua. Laguntza taldearen funtzioak

### **II. ATALA. ZIKLO TALDEAK**

25. artikulua. ziklo koordinatzaileen hautaketa.

26. artikulua. ziklo koordinatzaileen funtzioak.

### **III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA**

27. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak

### **IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK**

29. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

30. artikulua. Tutoreen funtzioak

31. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

32. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

33. artikulua. Irakasleriaren ordutegia.

34. artikulua. Datu konfidentzialak isilpean gordetzea.

### **V. ATALA HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN KOOORDINAKETA**

35. artikulua. HH eta LH arteko koordinazioa.

36. artikulua. DBH ikastetxearekin koordinazioa.

## **V. KAPITULUA PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK**

## **I. ATALA. ESKOLA INKLUSIBOKO BATZORDEA, IKASLEEN FOROA ETA BATZORDE MISTOA.**

37. artikulua. Eskola inklusiboko batzordea.

38. artikulua. Batzorde mistoa.

39. artikulua. Ikasleen foroa.

40. artikulua. Ikasleak eta eskola inklusiboa.

## **II. ATALA. GURASOEN BATZARRA ETA IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK**

41. artikulua. Gurasoen Batzarra.

42. artikulua. Ikasleen guraso elkarteak.

43. artikulua. Ikasleen guraso elkartearen bidez parte hartzea.

## **VI. KAPITULUA JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

44. artikulua. Jarduera osagarriak.

45. artikulua. Eskolaz kanpoko jarduerak.

46. artikulua. Ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpora garatzen diren jarduerak.

## **VII. KAPITULUA TESTULIBURUEN ZEIN BESTE CURRICULUM MATERIALEN ERABILERA.**

47. artikulua. Curriculum materialen aukeraketa.

## **VIII. KAPITULUA FAMILIEKIN HARREMANA**

48. artikulua. Familiekin hizkuntza harremana.

## **II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK**

### **I. KAPITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK**

49. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

50. artikulua. Bizikidetzeta-plana

51. artikulua. Eskubideen berehalako babesak.
52. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea.

## **II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK**

53. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea.
54. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea
55. artikulua. Funtsezko eskubideak.
56. artikulua. Ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea.
57. artikulua.- Ikasleek hezkuntza integrala eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea.
58. artikulua.- Ikasleek, gurasoek eta tutoreek informazio izateko eskubidea.
59. artikulua.- Eskola berdintzaile bat izateko eskubidea.

## **III. KAPITULUA. IKASLEEN BETEBEHARRAK**

60. artikulua.- Alderdi orokorrak.
61. artikulua.- Ikasleen eskola-betebeharrak.
62. artikulua.- Eskoletara hutsegitea justifikatzea.
63. artikulua. Betebeharrak ez betetzea.
64. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak.
65. artikulua. Jokabide desegokiak.
66. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak.
67. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.
68. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura.
69. artikulua.- Eskola-esparrutik kanpora egindako hutsegiteak.

## **III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA**

### **I. KAPITULUA EBALUAZIOAREN EZAUGARRI OROKORRAK.**

70. artikulua. Printzipio orokorrak
71. artikulua. Hartutako erabakiaren ondorioak

- 72. artikulua.- Ebaluazioaren oinarritzko erreferenteak.
- 73. artikulua.- Ebaluazioaren ezaugarriak.
- 74. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa
- 75. artikulua. Ikasleen familiei emango zaien gutxieneko informazioa.
- 76. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea
- 77. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea
- 78. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea
- 79. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea
- 80. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa
- 81. artikulua. Hartutako erabakiaren ondorioak

## **I. TITULUA. ELIZALDE LHI ko ANTOLAMENDUA**

# **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

## **1. artikulua. ELIZALDE LHIn izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak**

1. ELIZALDE LHI ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe honek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera ELIZALDE LHik ezaugarri hauek ditu: plurala da, euskalduna da eta proiektu eleanitza du, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

3. ELIZALDE LHik bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe honetako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

4 ELIZALDE LHik, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

## **2. artikulua. Aginte-organoak**

1. ELIZALDE HLHIk Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

a) Taldekoak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritzako taldea.

b) Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria.

## **3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza**

1. OOGren bidez ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalak ELIZALDE HLHIren kudeaketan parte har dezakete.

2. Badira ELIZALDE HLHIren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk ere: Gurasoen Batzarra, Ikasleen Foroa eta Foro Misto.

3. ELIZALDE HLHI ikastetxeko guraso-elkartearen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkio elkarte honi haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteak ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

## **4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak**



Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak ELIZALDE HLHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Organo hauek, Klaustroaren, Pedagogia Batzordearen eta Laguntza taldearen zuzendaritzapean egongo dira.

## **5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak**

1. Ikastetxeko aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoez, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2. Horrez gain, aginte-organoez, partaidetza-organoez eta koordinazio didaktikorako organoez bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiak aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

3. Mintzagai ditugun organoez, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiak ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

## **II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK**

### **I. ATALA. ELIZALDE HLHIko OOG**

#### **6. artikulua. ELIZALDE HLHIko OOGren ezaugarriak eta osaera.**

1. ELIZALDE HLHIko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiak hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan.

2. OOGren eskumenak:

a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolakuntza- eta jarduera-araudia eta kudeaketa-proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta 28.3 atalak agintzen duenaren arabera ebaluazioa egitea.

b) Ikastetxearen urteko plana onartzea, EEP aren 35.2.a) artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

c) Prestakuntza-jardueren, eskolaz eta urteko kudeaketa-egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.

d) Ikastetxearen urteko txostena onartzea.

e) Ikastetxeko zuzendaria hautatzeko prozesuan parte hartzea. Kideen bi hereneko gehiengoz onartuta, zuzendariaren izendapena ezeztatzeke proposatzea, karguari dagozkion funtzioak betetzen ez badira.





- f) Ikastetxeetan bizikidetzaren arloko neurri zuzentzaileak ezagutzea eta berrikustea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.
- g) Kultura eta hezkuntza-helburuekin lankidetzaren harremanak eduki beste ikastetxeekin.
- h) Eskolako instalazio eta ekipamendua berritzea, eta horien iraupena zaintzea.
- i) Eskolako jardueraren gainbegiratzea administrazio eta hezkuntza-arloetan.
- j) Eskola-egutegia onartzea, araudiak ezarritako baldintzei jarraiki.
- k) Lege honek edo beste arau batzuek, edo ikastetxearen antolakuntza -eta iharduera- araudiak ematen dioten beste edozein aginpide.

ELIZALDE HLHIko OOGk EEPLko 31. artikuluan aitor zaizkion eskuduntzak ditu

### 3. ELIZALDE HLHIko OOG ondoko hauek osatuko dute: (EEPL 32.2)

- a) Zuzendaria, OOGko buru izango dena.
- b) Ikasketa-burua.
- c) Klaustroak aukeratuko dituen hamar irakasle.
- d) Ikasleen gurasoen 15 ordezkari.
- e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- f) Udaleko ordezkari bat.
- g) Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

## 7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatu da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

## 8. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespina. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.
2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.
3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere,



ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiek derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.

4. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

- a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA, nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.
- b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.

5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluaren ezarritakoa beteko da.

## **9. artikulua. Presidentearen eskumenak.**

- a) Organoaren ordezkariak.
- b) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak erabakitzea, baita gai-zerrenda zehaztea ere, horretarako gainontzeko kideek egindako eskaerak bilduz.
- c) Bilkuren buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta arrazoi justifikaturik izanez gero, bilkura bertan behera uztea.
- d) Berdinketa kasuan, bere botoarekin berdinketa haustea, hartu beharreko akordioak hartu ahal izateko.
- e) Legeak betetzen direla ziurtatzea.
- f) Organoak hartzen dituen akordioaren aktak eta ziurtagiriak on-ikustea.

Zuzendaria kanpoan bada, ikasketa-burua izango da ikastetxeko buru edo, hala badagokio, antzintasun handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.

## **10. artikulua. OOGko mahaikideen eskumenak.**

- a) Araudi honen 8. artikuluan xedatutakoari jarriki, bilkurako deialdi guztien jakinarazpena jasotzea organoaren buruaren aldetik, non aztertu beharreko gai-zerrenda azalduko den, eta behar izanez gero, eztabaidatuko den dokumentazioa ere bilkura izan baino lehen bidaliko den.
- b) Bilkuren eztabaidetan parte hartzea.
- c) Botoa emateko eskubidea erabiltzea, pertsonala eta besterenezina dena, baita botoaren zentzua eta botoa justifikatzen duten arrazoiak azaltzea ere. Eskola batzordeko erabateko kideak, baita udaleko ordezkariak ere, egingo diren botazioetan ezingo dira abstenitu. (Administrazio publikoetako Araubide Juridikoa Azaroaren 26ko 30/1992 legea, 24.1 artikulua)
- d) Galde-eskeak egitea.
- e) Esleitutako funtzioak bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa lortzea.



## **11. artikulua.OOGko idazkariaren eskumenak**

- a) Bileretara bertaratzea hitzarekin eta botorik gabe.
- b) Lehendakariak hala aginduta, organoaren bilkuretako deialdiak egitea, baita organoko kideei zitazioak bidaltzea ere.
- c) Organoko kideen eta organoaren arteko komunikazio ekintzak jasotzea, eta ondorioz, kideen intereserako diren jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo edonolako idatziak jasotzea.
- d) Gai desberdinei buruzko mezuak prestatzea eta bilkuren aktak idaztea.
- e) Organoak hartutako kontsulten, erabakien eta akordioen ziurtagiriak luzatzea, beranduago lehendakariak on-ikusteko,

Idazkaria ez badago OOGko beste irakasle batek ordezkatu du. Honek, botoa izango du, organoa osatzen duten gainontzeko kideen baldintza berdinekin.

## **12. artikulua. OOGko batzordeak**

1. Batzorde iraunkorra: OOGk batzorde iraunkorra osatuko du eta EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOGko Batzorde Iraunkorrak kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketa-buruak, irakasle batek eta ikasleen bi guraso – sektore bakoitzean aukeratuak –. Organo horrek gehiengoz hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez. (Boto haztatuaren sistemaren bidez, batzordea osatzen duten gurasoen eta irakasleen botoek OOGko osoko bilkuran duten pisu berbera izango dute).

2. Bizikidetza Batzordea: Bizikidetza Batzordeak bi funtzio nagusi izango ditu: batetik, Bizikidetza planaren ezarpenaren jarraipena egitea eta bestetik, bizikidetzarentzat larri kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak proposatzea. Kide hauek osatuko dute: etapa bakoitzeko irakasle bat, ikasketa-burua edo zuzendaritzako beste kide bat, aholkularia, bi guraso eta bi ikasle.

3. Ekonomia Batzordea: Batzorde iraunkorraren osaera berbera izango du. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz OOGri informazio ekonomikoa ematea.

## **II. ATALA. KLAUSTROA**

### **13. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera**

1. Irakasleen klaustroa, ELIZALDE HLHIko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. Ikasleekin zuzeneko harremana duten gainerako langileak



klaustroaren partaide izan daitezke, hala nahi izanez gero. ELIZALDE HLHIko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.

3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketa-burua izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketa-bururik ez badago, antzinasunetik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, irakasle gazteenak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

#### **14. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena**

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.

2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara. Kideren batek ezin badu bilkurara bertaratu, horretarako arrazoiak justifikatu beharko ditu.

3. Klaustroan botazio bidez akordio bat onartzeko, gehiengo absolutua lortu beharko da. Klaustroko kide batek ezin etorri izana justifikatzen badu, botoa eskuordetu ahal izango du. Eskuordetutako botoak, Zuzendaritzan, kartazal itxi batean utziko dira, beste botoen formatu bera izango dute eta guztiekin nahastuko dira kontaketa egiteko unean. Edo konfiantzazko norbaiti emango zaio.

Eztabaidako gaiak garrantzitsuak direnean edo kideren batek hala eskatzen duenean, botazioa boto sekretua emanez egingo da.

4. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenaz egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioeko Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluari ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

#### **15. artikulua. Klaustroaren eskumenak**

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustroaren funtzioak zehaztu dira.

- a. Ikastetxearen ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardunen egitaraua egin eta onartzea, Ordezkaritza-Organoren irizpena eman ondoren; organo horrek erabakiko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jasotako arteztarauen egokitasunaz.
- b. Irakaskuntza-jardueren egitarauaren betetze-mailaren berri ematea Ordezkaritza Organorenari, urteko txostena egin dezan.
- c. Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak ezarri eta koordinatzea.
- d. Ikasleriaren bideratze-eginkizunak eta tutoretza planifikatzea eta zuzentzea.



- e. Ikastetxean garatu behar diren pedagogiazko saioetarako edo ikerketarako ekinbideak sustatzea.
- f. Ikastetxearen jarduera-arauak onartzea.
- g. Irakasleriaren prestakuntzari dagozkionetan prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan, eta osagarrizkoen egitarauari buruzko txostena egitea, 36.3 atalean erabaki bezala egina, eta Ordezkaritza Organo Gorenak onartu baino lehen.

### **III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA**

#### **16. artikulua. Zuzendaritza taldea**

1. Pertsona bakarreko aginte-organismoek ELIZALDE HLHko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.

2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu baita OOGk edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituenak ere.

- a. Ikastetxearen zuzendaritza eta koordinaziorako irizpideak erabakitzeke eta jarduerari begira garrantzi handiagoko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea.
- b. Kudeaketa-proiektua, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrizkoen egitaraua eta urteko kudeaketa-egitaraua gauzatzea, Ordezkaritza Organo Gorenak onar ditzan.
- c. Aurreko puntuan adierazitako programen burutzapena zaintzea eta koordinatzea, eta horien betetze-mailaren berri ematea Ordezkaritza Organo Gorenari urteko txostena onar dezan.
- d. Urteko txostenaren zirriborroa egitea, Ordezkaritza Organo gorenak eztabaida dezan.
- e. Ordezkaritza Organo Gorenari euskal eskola publikoko beste zenbait ikastetxerekin lankidetzaharremanak izateko proposamena egitea eta, halaber, kultura eta hezkuntza-xedez, erakundeekin itunean izenpetzeko proposamenak egitea, organo horrek, egoki baderitzo, hezkuntza-administrazioari aurkez diezazkion.
- f. Irakasle-taldeak antolatzea eta irakasleak beren jarduera atxikitzeke irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.

4. ELIZALDE HLHIn, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea:

Zuzendaria, Ikasketa-burua eta idazkaria.

### **III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK**



## 17. artikulua. Zuzendaria

1. ELIZALDE HLHIko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.

2. Zuzendaria EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu.

a) Ikastetxearen ordezkari izatea, ikastetxean hezkuntza Administrazioa ordezkatzeko, eta Administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.

b) Ikastetxearen jardura guztiak zuzentzea eta koordinatzea, irakasleen klaustroari eta ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.

c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatea, hezkuntza berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.

d) Legeen eta indarrean dauden gainerako xedapenen betetzea bermatzea.

e) Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.

f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazka konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkari-organorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazka konpontzeko prozedurak bizkortzea sustatuko da.

g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzatza bultzatzea, eta eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.

h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.

i) Ikastetxeko ordezkari-organorenari eta irakasleen klaustroaren egintza akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea, egintza-bilkura horiek zuzentzea eta aipatutako erakundeek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea eta betetzen diren zaintzea.

j) Lege honen 63. atalak aipatzen dituen obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioak egitea, gastuak baimentzea ikastetxearen urteko kudeaketa programarekin bat etorriz, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtagiriei eta dokumentuei oniritzia ematea, hori guztia araudi bidez ezarritakoari jarraiki.

k) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailari ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste kideen izendapena eta kargu-uztea proposatzea, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkari-organorenari jakinarazi ondoren.

l) Hezkuntza gaietan eskumena duen sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen antolaketa eta jardunbiderako erregelamenduak ezartzen.



## **18. artikulua. Ikasketa-burua**

Ikasketa-buruak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikasketa-burua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

- a) Irakaskuntzako jarduerak koordinatzea.
- b) Eskolako ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari ikastetxeko unitate bat edo gehiago izendatzea 36.3f atalean araututakoari jarraiki.
- d) Arauek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak aitortu diezazkioten gainerako egitekoak.

## **19. artikulua. Idazkaria**

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioko eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

- a) Ordezkaritza Organo Gorenaren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta irakasle-klaustroaren bilkuretako gai-zerrendan sartu beharreko gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezarritakoaren arabera, eta organo horien bilkuretako akta egitea.
- b) Aktak, espedienteak eta ikastetxearen beraren agiriak zaintzea, eta bertako organoen eskueran izatea. Ikastetxeko iraka-baliabideak zaintzea.
- c) Zuzendariaren oniritziarekin, ikastetxearen egintza, erabaki, hitzarmen, aurrekin, liburu eta agiri guztiak egiaztatzea.
- d) Arauek eta ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak aitortu diezazkioten gainerako egitekoak.

## **20. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organoak izendatzea eta kargua uztea**

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organoak izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

## **21. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeko**



1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketa-buruak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
2. Ikasketa-burua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.

## **IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK**

### **22. artikulua. ELIZALDE HLHko koordinazio-organoak**

ELIZALDE HLHIn irakaskuntzaren koordinazio-organo hauek egongo dira:

- a) Laguntza taldea.
- b) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea.
- c) Tutoreak.
- d) Taldeko, zikloko edota etapako irakasle taldeak.

### **I. ATALA. LAGUNTZA TALDEA**

#### **23. artikulua. Laguntza taldearen osaera**

Laguntza taldea ondoko hauek osatuko dute:

- a) Aholkularia (Psikopedagogia espezialitateko irakaslea).
- b) Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako maisu-maistrak.
- c) Ikasketa-burua.

#### **24. artikulua. Laguntza taldearen funtzioak**

1. Laguntza taldeak indarrean dauden legeek agintzen dizkieten funtzioak hartuko ditu bere gain. Hezkuntzako Sailburuordeak ikasturtero ematen du ikasturtearen antolamenduari buruzko ebazpena. Laguntza taldeak, horrenbestez, ebazpen horretan jaso diren funtzioak izango ditu. Mintzagai dugun departamentuko kideek, Departamentuko funtzio komunez gain, Hezkuntzako Sailburuaren ebazpenaren bidez ezarri zaizkien banakako funtzioak bete beharko dituzte.

2. Funtzioak:

- a) Tutoreari zailtasunak identifikatzen laguntzea, baita arrakasta emango dioten estrategiak zehazten laguntzea ere.
- b) Irakasle tutoreei, banakako curriculum egokitzapenak egiteko laguntza eta aholkularitza ematea.





c) Gelan tutorearekin elkarlanean esku-hartzea, gelan bi profesional gisa jokatz, edo talde malguak egiteko momentuan, beste irakasle bat bezala jokatz.

d) Irakasle tutoreei etengabeko ebaluaketa egiten laguntzea, bai ikasleena nahiz hezkuntza testu inguruarena ere.

e) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei banakako arreta ematea, bai inguru arruntak elkar banatuz edo haienezako inguru zehatzak sortuz.

f) Tutoretza-lanen, aniztasunarekiko arretaren eta hezkuntza-premia berezien lanetan, berrikuntza- eta prestakuntza-programak sustatu eta koordinatzea.

## **II. ATALA. ZIKLO TALDEAK**

**25. artikulua. Ziklo koordinatzaileen hautaketa.** Ziklo bakoitzeko koordinatzailea ziklo taldeak proposatuko du. Ahal izanez gero, bi ikasturterako izendatuko da gutxienez, eta ikasketa-buruarekin batera lan egingo du bere zereginetan.

### **26. artikulua. ziklo koordinatzaileen funtzioak:**

- Dagokion zikloan irakaskuntza koordinatzea, curriculum-proiektuaren eta ikastetxearen urteko programazio orokorraren arabera.
- Zikloan ebaluazio prozesuak koordinatzea.
- Pedagogia koordinaziorako batzordean, zikloko ordezkari bezala parte hartzea.
- Ikasketa buruak agintzen dizkion funtzioak.

## **III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA**

### **27. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera**

ELIZALDE HLHIn Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Zuzendaria, ikasketa-burua, ziklo koordinatzaileek eta irakasle aholkulariak osatuko dute Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, ikastetxeko zuzendaria buru izango duenari.

### **28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak**

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakas-talde desberdinen koordinazio-organoa da.

2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zainzapean egonik:

a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentzarau orokorrak ezartzea.

b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien



zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.

c) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.

d) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.

e) Klaustroari ebaluazio bileren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketa-buruak dioenaren arabera.

f) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.

g) Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.

h) Prestakuntza-jardueren eta jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen programa bideratzea.

#### **IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK**

##### **29. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea**

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. Talde bakoitzak bere tutorea izango du.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketa-

buruaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorritik.

4. Ikasketa-buruak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldian aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

##### **30. artikulua. Tutoreen funtzioak**

Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.

Tutore bakoitzak bere talde didaktikoko ikasleei orientabidea emango die, eta talde horretan eskola ematen duten irakasleak koordinatuko ditu. Horrez gain, familiei informazioa ere emango beharko diete.

Zehazki, irakasle tutoreak lan hauek beteko ditu:

- Ikasleen gaitasunak eta interesak ezagutzea, ikasketa-prozesuan orientabide eraginkorra eman erabaki pertsonalak eta ikasketa-esparruko erabakiak hartzen laguntzeko.
- Ikasleak beren taldean eta eskola-bizitzan integratzen laguntzea eta parte-hartze jokabideak sustatzea.



- Taldeko irakasleen hezkuntza-ekintza koordinatzea, irakasleen bilerak antolatu eta zuzentzea, baita taldeko ebaluaketa-bilerak ere.
- Ikasleen etengabeko ebaluaketa-prozesua koordinatzea, eta irakasleekin batera, ikasle bakoitzaren ebaluaketa eta sustapenerako erabakiak hartzea, gai horri buruz indarrean dagoen araudiak eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuak xedatutakoaren arabera.
- Laguntza-irakasleekin batera, eta beharrezkoa bada, aholkulariarekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako curriculumaren egokitzapenak egin eta esku-hartzeak koordinatzea. Bere ardurapean dituen ikasleen ikasketa-dokumentazioa betetzea.
- Ikasleei eta haien familiei, hezkuntza-gaitasun orokorrak nola ikasten ari diren jakinaraztea.
- Ikasleak eskolara huts egiten badute, familiei jakinaraztea.
- Ikastetxeko tutoretza orientabide eta ekintzarako Planean zehazten diren beste lanak.

### **31. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera**

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.

2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Ikasketa-buruak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.

### **32. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak**

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

- a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b) Taldeko bizikidetzeta-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.
- d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.
- e) Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.

### **33. artikulua. Irakasleriaren ordutegia.**

- a) Irakasle guztiek egutegian azaltzen den ordutegia beteko dute, aldaketarik egin gabe.
- b) Ikasturte hasieran finkatutako ikastaldearen ordutegian aldaketak egiteko beharra egonez gero, zuzendaritzan planteatu behar da.
- c) Ordutegi honen barruan ezingo da eskolatik atera justifikaziorik gabe eta zuzendaritzan jakinarazi beharko da.



**34.artikulua Datu konfidentzialak edo eskolaren izena eta elkarbizitza okertu dezaketenak isilpean gordetzea.** Irakasle orok, ikasle eta irakasleei buruzko informazioa, nahiz ikastetxe barneko datu konfidentzialak isilpean gordetzeko betebeharra du,

## **V. ATALA HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN KOOORDINAZIOA**

**35. artikulua. HH eta LH arteko koordinazioa.** HH5eko tutoreek taldeak berrantolatu eta LH1erako talde orekatuak osatzen ahaleginduko dira. Ahal denean, ikasleen familiei izango duten tutorearen berri emango zaie. HH5eko tutoreek LH 1eko tutoreekin bilera egingo dute ikasturte hasieran, behin ikasleak ezagutu ondoren, ikasleen ezaugarriak eta beharrak aztertzeko.

### **36.artikulua. DBH ikastetxearekin koordinazioa.**

Ikastetxe bakoitzak bere Curriculum proiektua izan arren, bi ikastetxeen arteko koordinazioa ezinbestekoa da. Ikasleek, 2-16 urte bitarte, egiten baitituzte bere ikasketak Elizalde Herri Eskolan. Horretarako honako ekintzak burutuko dira:

- a) Bi ikastetxeetako Zuzendaritzak astean behin elkartuko dira.
- b) IUP eta Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak elkar trukatu dituzte.
- c) LHko 6.mailako eta DBHko 1.mailako tutoreek ikasleei buruzko informazioa elkar trukatu dute.
- d) Aholkulariak, pedagogia terapeutikoko irakasleak eta orientatzaileak hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen jarraipena egingo dute.
- e) Sor daitezkeen proiektu eta jarduera desberdinetan: Inauteriak, Elizalde Eguna, Gabonak... elkarlanean arituko dira bi ikastetxeak.

## **V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK**

### **I. ATALA. ESKOLA INKLUSIBOA BATZORDEA, IKASLEEN FOROA ETA BATZORDE MISTOA.**

#### **37. artikulua. Eskola inklusiboa batzordea**

Batzorde honen osaera: Zuzendaria, ikasketa-burua eta aholkulariaz gain, ikastetxeko edozein irakasle parte har dezake. Ziklo bakoitzeko irakasle bana egotea hobesten da. Ikasketa-burua izango da batzorde-burua.

Astero elkartuko da, eta inklusioaren planteamendua alderdi desberdinetatik jorratuko du, ikastetxeko proiektu desberdinak bilduz.



### **38. artikulua. Batzorde mistoa.**

Eskolako egunerokotasunean sortzen diren gaien inguruan denon ikuspuntua bildu eta adostasunetara iristea du helburu. ELIZALDE HLHko ikasle, guraso, irakasle eta langile ez irakasleak eskola inklusiboa batzordeak antolatutako foro eta batzordeetan parte hartu ahal izango dute.

Batzorde mistoko ordezkariak:

- Ikasleak: Maila bakoitzeko bi ikasle, LH3tik-LH6arte.
  - Irakasleak: Bi irakasle, ikasketa-burua eta zuzendariak hartuko dute parte batzorde mistoan. Eskola inklusiboa batzordeak irakasle guztiei bertan parte hartzeko aukera eskainiko die, aurkeztutakoen artean aukeratuko ditu ordezkariak.
  - Gurasoak: Guraso elkarteak aukeratuko ditu batzorde honetarako lau ordezkari.
- Langile ez irakasleak: Talde hau garraio, jantoki eta goiz-txokoko begiraleek, sukaldariak, garbitzaileak eta atezainak osatzen dute. Ordezkari bat izango dute batzorde mistoan.

### **39. artikulua. Ikasleen foroa.**

Foro honetan gela bakoitzeko bi ikaslek parte hartuko dute, HH5etik LH6arte, batzorde mistoan aurkeztuko dituzten proposamenak eta iritziak adosteko edo eskolako beste batzordeei proposamenak egiteko.

### **40. artikulua. Ikasleak eta Eskola Inklusiboa.**

- a) Eskola Inklusiboaren ikuspegia jarraituz, ez dira ikasleak gelatik kanporatuko. Ikasle batek bere jokaeratik jasanezinezko egoerak sortzen baditu, aholkulariarekin estrategia bereziak aztertuko dira, eta une larrietan zuzendaritzaren edo zaintza duen irakaslearen laguntza eskatu ahal izango da.
- b) Eskolako ikasle eta irakasle guztiek parte hartzeko jarduerak bultzatuko dira elkarren arteko ezagutza eta kohesioa sustatzeko.

## **II. ATALA. GURASOEN BATZARRA ETA IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK**

### **41. artikulua. Gurasoen Batzarra**

1. Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak Batzorde Iraunkorarekin batera egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra.

2. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

- a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiak buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza jardueren, prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko jardueren



eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa programa gauzatzearen balioespena.

b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzan handiena lortze aldera.

c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.

d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.

e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

## **42. artikulua. Ikasleen guraso-elkarteak**

1. ELIZALDE HLHIk, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera erabera eraberrita dagoen ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko du, bere egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko dio.

2. Zuzendariak zehaztuko du elkarteak zer lokal erabiliko duen modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkartearen ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango dio arestian aipatutako elkarteari.

3. Ikastetxeko aginte-organoez ez dituzte ikasleen gurasoak jardutez edo ez-egitez behartuko elkartearen izena ematera ezta elkartearen diruz laguntzera ere.

## **43. artikulua. Ikasleen guraso elkartearen bidez parte hartzea**

Ikasleen guraso-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.

b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.

c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.

d) OOGn landu diren gaien buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.

e) OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.

f) AJA aldatzeko proposamenak landu.

g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.

h) Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.

i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketan ale bat jasotzea.

j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuak eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.



- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

## **VI. KAPITULUA JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK.**

### **44. artikulua. Jarduera osagarriak:**

a) Irakaskuntza ordutegiaren barruan: Eskola ematea ez diren jarduerak eta curriculumarekin zuzeneko erlazioa dutenak. Ikasleek derrigorrez parte hartu behar dute jarduera hauetan. Ikastetxetik kanpo egiten direnean, parte hartzen ez duten ikasleek zeregina aurreikusi beharko du ikastetxeak, betiere ez parte hartzearen justifikazioa aurkeztu beharko dute ikasleek. Oro har ikasleentzako dohainik izango dira, eta urteko kudeaketa programan azaldu beharko dira.

b) Irakaskuntza ordutegitik kanpo: Eskola ematea ez diren jarduerak eta curriculumarekin zuzeneko erlazioa dutenak, eta programaren zati bat irakaskuntza ordutegitik kanpo burutzen denean. Ikastetxetik kanpo egiten direnean, parte hartzen ez duten ikasleek zeregina aurreikusi beharko du ikastetxeak, betiere ez parte hartzearen justifikazioa aurkeztu beharko dute ikasleek.

Jarduera osagarriren baten ondorioz gaua etxetik kanpo pasa behar den kasuan, irakasle laguntzaileetako bat gutxienez mailako tutorea izango da, edo ikasle horiek ezagutzen dituen irakaslea.

c) Ekintzak ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten direnean eta irakasleak bertan gau edo gauak pasatzen dituenen, Klaustroak, OOGren oniritziarekin, hainbat ordutako konpentsazioa ezarri ahal izango dio irakasle horri.

### **45. artikulua. Eskolaz kanpoko jarduerak:**

Irakaskuntza ordutik kanpo egiten direnak eta nahiz hezkuntza-helburua eduki, eskola-curriculumarekin zuzeneko erlazioa ez dutenak. Ikasleek nahi izanez gero parte hartuko dute eta ordain ekonomikoa eskatu ahal izango da. Ezin izango da inor baztertu jarduera hauetatik. Irakasleek nahi izanez gero parte hartu ahal izango dute jarduera hauetan.

### **46. artikulua. Ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpora garatzen diren jarduerak.**

Aurretik, ikasleek gurasoek edo legezko ordezkariak baimena eman beharko dute ikasleek jarduera burutu ahal izateko.

## **VII. KAPITULUA TESTULIBURUEN ZEIN BESTE CURRICULUM MATERIALEN ERABILERA.**

### **47. artikulua. Curriculum materialen aukeraketa.**



a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, euren Curriculum Proiektura hobekien egokitzen diren curriculum materialak aukera ditzakete. Beti ere Hezkuntza Sailak baimena eman badu.

b) Zein testu liburu eta curriculum material aukeratu ziklo bakoitzeko irakasle taldeak erabakiko du, euren proiektuaren eta antolamendu eskemaren arabera. Pedagogia Batzordearen onespena beharko du.

c) Aukeratzen diren oinarritzko curriculum materialak ezin izango dira ordezkatu ikasle taldeak zikloa amaitu arte.

d) Edonola izanda ere, curriculum alor baterako aukeratzen diren testu-liburuak zein curriculum materialak, edo talde, ziklo edo etapa baterako aukeratzen direnak, gutxienez lau urtez erabiliko dira. Ezarritako epea baino lehen materiala aldatu beharko balitz, arrazoiak justifikatu beharko lirateke.

## **VIII. KAPITULUA FAMILIEKIN HARREMANA**

**48.artikulua. Familiekin hizkuntza harremana.** Euskara ez dakiten familiekin komunikazio egokia lortzeko eskolak bidaltzen dituen ohar guztiak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira. Familia euskaldunei oharrak euskara hutsean jasotzeko aukera emango zaie. Tutoreen ardura izango da familien nahia ezagutu eta errespetatzea.

# **II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK**

## **I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK**

### **49. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak**

ELIZALDE HLHiren ustez, bizikidetzaren bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

### **50. artikulua. Bizikidetzaren plana**

ELIZALDE HLHik bizikidetzaren plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetzaren helburu nagusia bizikidetzaren gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabili daitezke.

### **51. artikulua. Eskubideen berehalako babesa**





Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketa-buruarengana joateko agindu.

## **52. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea**

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte. Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketa-buruarengana joatea aginduko dio.

## **II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK**

### **53. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea**

ELIZALDE HLHIko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

### **54. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea**

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketa-burua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezten.

3. Ikasketa-buruak begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat irakasle izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

### **55. artikulua.- Funtsezko eskubideak.**

1.- Ikasleek euren kontzientzia-eskubidea, ideologia, erlijio-mailako ideiak, ideologia etikoa eta morala errespetatua izateko eskubidea dute, baita horiekin erlazionatutako alderdi oro ere.

2.- Eskubide hau jarraian adierazten den moduan ziurtatuko da:



a) Irizpide objektiboetan oinarritutako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen ideologiaren manipulazioa saihestuko duena, adierazpen-askatasunaren kaltetan izan gabe, eta hori guztia antolamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

b) Ikasleen gaitasuna eta jarrera kritikoa sustatzea.

c) Ikasleek edo euren gurasoek zein tutoreek seme/alabentzako nahi duten erlijio-irakaskuntza aukeratzeko eskubidea dute, horretarako legez aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

d) Matrikulazioa egin aurretik, Ikastetxearen hezkuntza-proiektuari buruzko informazioa ematea.

**3.-** Ikasle guztiek dute euren osotasun fisikoa, psikikoa zein morala eta norberaren dignitatea errespetatzeko eskubidea, eta ezin izango dira ikasleen aurkako jarrera iraingarriak azaldu ezta tratu txarrak, fisikoak zein moralak, jasan ere.

**4.-** Aldi berean, ikasle orok du bere jarduera akademikoa segurtasun eta higiene mailako baldintzetan garatzeko eskubidea.

**5.-** Ikastetxe orok, ikasleen egoera pertsonalari zein familiakoari buruzko informazioa isilpean gordetzeko betebeharra du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta bere Zerbitzuek eskatzen duten informazioaren kaltetan izan gabe. Antolamendu juridikoaren arabera, eta ikaslearentzat tratu txarrak eragin ditzaketen egoera orotan edo adin txikikoen babeserako legeetan ezarritako betebeharrak errespetatzen ez direnean, eskumeneko agintaritzari jakinarazteko betebeharraren kaltetan izan gabe.

## **56. artikulua. Ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea. Sakelako telefonoa eta grabazioak.**

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, ELIZALDE HLHIko aginte-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Honekin lotuta, ikastetxean grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da. Ikastetxe barkerako erabilera izango duten argazki eta grabazioak soilik baimenduko dira, helburu pedagogikoa dutenak eta ikasleen artean oroigarri gisa banatuko direnak.

2. Ikasgelatik kanpo, aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

## **57. artikulua.- Ikasleek hezkuntza integrala eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea.**

1.- Ikasleek euren nortasunaren garapen osoa ahalbidetuko dien prestakuntza jasotzeko eskubidea dute. Helburu honetara zuzenduko dira beti ikastetxeetako



curriculum-diseinuak eta hezkuntza proiektuak eta curriculum-proiektuak, baita irakaskuntzaren programazio orokorra ere.

**2.-** Aurreko atalean aipatutako prestakuntzaren barruan honako alderdi hauek aurkituko ditugu:

a) Bizikidetzarako printzipio demokratikoen barruan, eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarritutako prestakuntza, baita tolerantzian ere.

b) Aztura intelektualak eta lanerako teknikak bereganatzea, baita zientzia-mailako ezagupenak, ezagupen teknikoak, humanistikoak, historikoak eta estetikoak bereganatzea ere.

c) Ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta prestakuntza integrala eskaintzea, bizikidetzara demokratikoa ahalbidetzen duten baloreetan oinarrituta.

d) Ikasleek euskal herriaren partaide diren neurrian euren kultu nortasuna ezagutzea, euren herriaren historia eta kultura ezagutzuz, ikasleek euren geografia-esparruan, gizarte eta ekonomia esparruan eta kultur esparruan errotzea sustatuz.

e) Derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek baldintza berdinetan bi hizkuntza ofizialak ezagutzea, euskararen erabilera bultzatuz eta euskararen normalkuntzan lagunduz.

f) Afektibitatea, norberaren autonomia, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko gaitasuna modu armoniatsuan garatzea.

g) Lanbide-jarduerak, adimen-jarduerak eta jolas-jarduerak gauzatzeko gaitasuna.

h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatuko duen hezkuntza.

i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko lan egitea.

j) Bakerako eta askatasunerako prestakuntza eta herrien arteko lankidetzarako eta elkartasunezko ideiak sustatzea.

**3.-** Eskola-jardunaren barruan lanaren antolamendua ikasleen adinera eta heldutasunera egokituko da, hartara ikasleen gaitasunen garapen osoa ziurtatzeko. Horretarako, eskola-jarduna antolatzeko orduan, besteak beste ikasleen proposamenak eta interesak kontuan hartuko dira.

## **58. artikulua.- Ikasleek, gurasoek eta tutoreek informazio izateko eskubidea.**

**1.-** Ikasleek ebaluazio-irizpideak eta ikasturte edo eskola-ziklo bakoitzean gainditu beharreko gutxienekoak ezagutzeko eskubidea dute. Aipatu irizpideak, Ikastetxearen curriculum-proiektuaren zati izango direnak, ikastetxeek ikasturte hasieran jakinarazi beharko dituzte eta indarrean dauden ikasketa planekin eta Ikastetxe bakoitzak duen autonomiaren arabera hartzen diren aukerekin bat etorriko dira.



**2.-** Ikasleek, edo ikasleen gurasoek zein tutoreek, jarduera akademikoaren kalifikazioei buruz eta ebaluazio partzialei edo azken ebaluazioei buruz irakasleei informazioa eskatzeko eskubidea dute.

**3.-** Ikasleek edo ikasleen legezko ordezkariak aipatu ebaluazioen kalifikazioak aldatzeko eska dezakete. Kasu horretan jarraituko den prozedura honako hau izango da:

1. - Erreklamazioaren xedea den irakasgaiaren tutoreari edo irakasleari idatziz eskatzea.

2. - Erantzunik jasotzen ez bada edo emandako azalpena nahiko ez bada, Ikastetxeko Zuzendariari idatziz beste erreklamazio bat eskatuko zaio.

3. - Azkeneko aukera bezala, beti ere aurreko bi bideetatik erreklamazioa egin duen pertsonak erantzunik jaso ez badu, erreklamazioa Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuan aurkeztu beharko da.

### **59. artikulua.- Eskola berdintzaile bat izateko eskubidea.**

**1.-** Ikasleek, familia mailako, ekonomia mailako, gizarte mailako eta kultur mailako gabeziak dituzten kasuetan, gabezia horiek orekatzeko behar dituzten neurriak jasotzeko eskubidea dute, hartara ikasleek aukera berak izateko baldintza egokiak sortzeko.

**2.-** Ikastetxeek, Euskal Eskola Publikoaren Legeko 10. eta 68. artikuluan xedatutakoari jarraiki, beste zenbait zerbitzu publikorekin harremanak izan ditzakete, hartara bereziki gizarte mailan, kultur mailan eta ekonomia mailan gutxietsita dauden ikasleen premiei erantzun ahal izateko.

**3.-** Istripurik edo gaixotasun luzerik duten ikasleen kasuan, behar duten hezkuntza-laguntza izateko eskubidea dute, bai ikastetxearen beraren bitartez, bai ospitale baten bitartez, edo etxean bertan hezkuntza laguntza eskainiz, indarrean dagoen araudiaren arabera, hartara istripuak edo gaixotasunak ikaslearen eskola errendimenduan eraginik izan ez dezan.

## **III. KAPITULUA. IKASLEEN BETEBEHARRAK**

### **60. artikulua.- Alderdi orokorrak.**

HH/LHko ikasleek, Eskola Elkarteko gainontzeko kideen eskubideak eta askatasuna errespetatzeko betebeharra dute. Betebehar horren barruan, honako alderdi hauek aurkituko ditugu:

a) Eskola Elkarteko kide guztien kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologikoak, erlijiosoak, moralak eta etikoak errespetatzea, baita kide guztien duintasuna eta intimitatea ere.



b) Eskola Elkarteko kiderik ez diskriminatzea jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijioa edo iritzia, edo beste edozein arrazoi pertsonal zein gizarte-mailakorengatik.

c) Ikastetxearen hezkuntza -proiektua errespetatzea.

d) Antolamendurako eta Funtzionamendurako Araudia errespetatzea.

e) Ikastetxeko ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatzea eta modu egokian erabiltzea.

f) Eskola Elkarteko gainontzeko kideekin elkarlanean jardutea, hartara irakaskuntzaren garapena hobetzeko, baita ikastetxeko eskola-orientabidea eta elkarbizitza ere.

g) Ikasle bakoitzak eskoletara joateko duen eskubidea errespetatzea.

## **61. artikulua.- Ikasleen eskola-betebeharrak.**

Ikastea da ikasleen oinarrizko betebeharrak bat, hau da, nor bere gaitasunak nahiz eskaintzen dizkioten ezagupenak aprobetxatu behar ditu, nor bere buruaren garapen bikaina lortzeko eta intelektualki eta lanbide-mailan prestakuntza egokia lortzeko. Betebeharrak orokor honekin jarraian adierazten dena ulertuko dugu:

a) Eskoletara joatea, eskola egutegian adostutako jardueretan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea.

b) Irakasleak ematen dituen azalpenak arretaz jarraitzea eta proposatzen dituen jarduerak didaktikoak garatzea.

c) Irakasleek, irakaskuntza-funtzioak betetzen dituzten neurrian, agintzen dituzten lanak egitea.

d) Lagunek ikasteko duten eskubidea errespetatzea.

## **62. artikulua.- Eskoletara hutsegitea justifikatzea.**

1.- Hutsegiteak ikasleen gurasoek edo tutoreek justifikatu behar dituzte, dagokien tutorearen aurrean eta Ikasketak Buruak onartu behar ditu.

2.- Hutsegiteen ondorioz etengabeko ebaluazio zuzena egitea ezinezkoa den kasuetan, balorazioa egiteko orduan ebaluazio-irizpideei eta arloen edo ikasgaien izaerari dagokienez ezarritakoari jarraituko zaio. Hala ere, ikasleei ezin zaie ukatu beste prozedura batzuei jarraiki ebaluatuak izateko eskubidea.

## **63. artikulua. Betebeharrak ez betetzea**



1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

#### **64. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak**

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileak zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

#### **65. artikulua. Jokabide desegokiak**

1. Jokabide desegokitzen arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.

2. ELIZALDE HLHIn, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.

3. Ikasketa-buruak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

##### **JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)**

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak.
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haien mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.

##### **JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34. artikulua)**

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.



g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.

i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.

j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.

k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

## 66. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketa-buruak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

### BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietarako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion

### BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

b) Kargu-hartze idatzia.

c) Kargu-hartzea, ikasleen gurasoak edo lege-ordezkariei bertan direla.

d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka





jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haien, edo, hala badagokio, haien gurasoen edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.

izandako jokabidearekin.

f) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoen edo legezko ordezkariarekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

## **67. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak**

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketa-buruak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

## **68. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura**

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

### **BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)**

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai

### **BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENTZETA (36. artikulua)**

3. Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, 28. artikuluko 1.n) idatz-zatian adierazitako kasuan izan ezik, hezkuntzako lurralde-ordezkariari eskatzeko ikasle horren matrikula beste ikastetxe batera aldatua izan dadin. Ikaslea adin nagusikoa balitz edo derrigorrezkoak ez diren ikasketak ikasiko balitu, urruneko hezkuntzako zentroetarako edo gaueko ikasketetako zentroetara lekualda daiteke haren espedienteak. Adinez nagusiko ikasleak edo derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten dituen ikasleak ez balu onartuko espedientearen lekualdaketa hori, baliogabetu egingo da ikasle horrek ikastetxean duen matrikula, eta baja emango zaio ikastetxe horretan.

4. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkion jokabidearen ondorioz berdinaren arteko tratatu txarrak edo jazarpen sexistak eragin edo irauraraziko balitu, edota, jokabide horiek ikastetxeko irakasleren bati egindako erasoak





taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, alde zuzenetik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartze, biltze, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

badira, zuzenean proposa daiteke espedientearen lekualdaketa, aintzat hartu gabe ikasle hori aurretik zuzendua izan den ala ez. Jardunbide bera baliatzeko aukera izango da, baldin eta eraso fisiko bereziki larriak egin bazaizkio hezkuntza-komunitateko beste kideren bati.

Dekretu honetako 75. artikuluan adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

Dekretu honetako 3.1. atalean adierazitakoaren arabera interpretatuko da idatz-zati hau.

## 69. artikulua.- Eskola-esparrutik kanpora egindako hutsegiteak.

Hutsegitea eskola-esparrutik kanpora egitea ez da oztopo izango Araudi hau ezartzeko orduan, beti ere hutsegitea Ikastetxeak programatu dituen jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzen diren bitartean edo ikastetxeko jantokia edo garraioa erabiltzen direnean egiten bada. Aldi berean, eskola-jarduerarekin erlazioa dagoela ziurtatzen den guztietan ere ezarriko da Araudi hau.

## **III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA**

### 70. artikulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta



gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

## **71. artikulua. Publikotasuna**

1. Ikasketa-buruak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkioen eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarrizko gaitasunak.
2. Ikasketa-buruak, halaber, bermatu beharko du irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.
3. Ikasketa-buruak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

## **72. artikulua.- Ebaluazioaren oinarrizko erreferenteak.**

- 1.- Etapako irakasle-taldeari dagokio, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculumak finkatzen diren Dekretuetan xedatutako helburuak eta curriculum-edukiak testuingurura eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea. Helburu eta eduki hauek etaparen curriculum-proiektua osatuko dute, baita ebaluazio -prozesua gidatu ere.
- 2.- Ikaskuntza-prozesuaren ebaluaziorako oinarrizko erreferenteak honako hauek izango dira:
  - a) Oinarrizko kompetentziak.
  - b) Etapako edo hala badagokio ziklo desberdinetako helburu orokorrak.
  - c) Esperientzien eremuetako helburu orokorrak.
3. Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldeak, bere curriculum-proiektuan ebaluaziorako irizpideak eta jarraibideak proposatu behar ditu, hartara ziklo bakoitzean izandako bereganatze-maila eta gaitasunen garapena baloratu ahal izateko. Ebaluaziorako modu eta tresna desberdinak sustatuko dira, ebaluatu beharreko helburuei eta ebaluatuko diren ikasleen aniztasunari egokituko direnak.
4. Tutoreei dagokie, Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren norabideen barruan, ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa egitea.
5. Ikaskuntza-prozesuaren balorazioa kualitatiboki adieraziko da, ikasleek egindako aurrerapenak azalduz, eta hala badagokio, izandako errefortzuak eta egokitze neurriak ere aipatuz.

## **73. artikulua.- Ebaluazioaren ezaugarriak.**

Hiruhileko batean ikasle baten ikasgai bateko asistentzia edo puntualtasun falta % 25 baldin bada, arloaren arabera ikasle hori nola ebaluatu pentsatuko da eta falta hori txostenean adieraziko da. Espezialistak sartzen diren geletan ebaluazio bilerak



egingo dira. Bilera horietan irakasle tutoreak, irakasle espezialistak eta laguntza taldeko kide bat bilduko dira, ikasleek lortutako emaitzak ebaluatu eta aztertzeko. 236 eta 237/1992 Dekretuetako 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa globala, banakakoa, etengabekoa eta hezigarria izango da. Beraz, ebaluazioa orientatzeko eta hezkuntza-prozesua zuzentzeko izango da, izan ere, etengabe informazioa ematen duenez, bai prozesuak bai hezkuntza-mailako esku-hartzearen emaitzak hobetu ahal izango dira.

#### **74. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa**

1. Ikasketa-buruak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatu dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jardueri nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.
2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketa-buruak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.
3. Ikasketa-buruak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin hiruhilekoan behin bilduko direla. Bermatu behar du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.
4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreak ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, ebaluazio bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.
5. Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:
  - Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
  - Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
  - Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
  - Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu behar du. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan behar du ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu behar dituztelarik.

#### **75. artikulua. Ikasleen familiei emango zaien gutxieneko informazioa.**



- a- Ikasturte hasieran, maila guztietan, Guraso bilerak antolatuko dira. Irakasle espezialistek bilera hauetan parte hartuko dute taldearentzat berriak direnean.
- b- Haur Hezkuntza. Banakako informazioa: 1. eta 2. hiruhilekoan ahozko informazioa emango zaie familiei, eta 3.ean idatzizko informea.
- c- Lehen Hezkuntza. Banakako informazioa: kalifikazioak hiruhilero emango dira eta ahozko bilera bat egingo da gutxienez ikasturtean zehar eta ziklo bukaeran beste bat.
- d- Guraso bananduen kasuan, administrazioak ezartzen duen protokoloa jarraituko da.

## **76. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea**

1. Ikasleek eta, hala egokituz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
2. Ikasketa-buruak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.
3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

## **77. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea**

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertze eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, irakasle taldeari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango da curriculum ofiziala, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio irizpideak lotesleak direla.

## **78. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea**

1. Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikuluen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.
2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakasle taldearen esku-hartzea eska dezakete. Irakasle taldeak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz erreklamazioa egin den modu berean erantzungo dio.
3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

## **79. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea**



1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

## **80. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa**

1. Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasleek kalifikazioa berrikusteko tutoretza-ordua jarriko dute. Tutoretza hori ikasketa-buruak onetsi duen orduan egingo da. Kalifikazioa berrikusteko orduan, irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den, bere iritziz, merezi duten nota. Ikasleen aldeko edo kontrako iritzia jasoko ditu eta, bere irizpide propioari jarraiki, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.

2. Aurreko puntuaren zehaztutako tutoretza ordura joan, kalifikazioarekin ados ez daudela adierazi eta, hala ere, aintzat hartuak izan ez diren ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketa-buruari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, ikasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa; eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.

Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

3. Ikasketa-buruak dagokion irakasle taldeari aurkeztuko dio erreklamazioa. Irakasle taldeak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Irakasle taldeak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak.

Kontuan izango du erreklamatzaileraren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

4. Ikasleak azken ebaluazioan «gutxi» edo «gutxiegi» kalifikazioa jaso badu, haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritzia besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta ikasleak eskoletan ahoz emandako iritziei buruz nahikoa informazio bildu bada.

5. Irakasle taldeak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.



## **81. artikulua. Hartutako erabakiaren ondorioak**

1. Irakasle taldeak bere erabakiaren berri emango dio ikasketa-buruari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio erabakia.
2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketa-buruak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.